

intxaurrondo

Otxoki pasealekua lanetan

Intxaurrondo ikastola zaharreko lokalak, Letaman izenez ezagutzen direnak, auzoaren erabilpenerako lokalak bilaka daitezke. Alkateak hasera batean plaza bat eraikitzeko asmoa bazuen ere, badirudi lokal horiek aprobetxatzeko asmoa duela, auzoko jendeak erabiltzeko egokituz. Hala ere, oraindik ez dira lokalak ukitu eta ez da lanik egin bertan.

Bestalde, gogoratu ikastola berriaren inaugurazio ekitaldia igandean egingo dela aste osoan kultur ekitaldiak izan ondoren. Gaur ostirala rock kontzertua izango da Mugatik Out eta Ttak taldeekin. Bihar larunbata, haurren eguna izango da, goizez olinpiadak eta arratsalde, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoak Gabriel Zelaia plazan. Igandean Artzak-Orteok elkartearekin batera egingo da jaia.



Hipermerkatuaren eta inguruko bidesarearen obrak izugarriak dira.

zabaltzen ari dira eta aurki, Eroski supermerkatua zuzenean iristeko karril bat zabalduko dute. Errepide berriarekin, gure auzoa zuzenean jarriko da harremanetan Martutenerekin. Garberatikhasi eta Martuteneko 27. poligonoraino iritsiko da bidea. Bestalde, supermerkatua hurbilduko den jendetza aurrikusiz, glorieta bat eraikitzeko asmoa dago. Beraz, glorieta etorkizunera-ko ibilbidea eta egungo zati-keta saihesteko asmoz egingo da. Eroski supermerkatuak, 1997an zabalduko ditu ateak ziurrenik.

etorkizuneko Eroski supermerkatuari begira, Otxoki pasealekuaren

amaieran -barianteko sarre-ran- egokitze lanak hasi dira. bertako bihurtzea

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

altza

Altza Interneten

Ipuinaren ordua ize-neko saila hasi dute berriro ere Larrotxene Kultur etxean. Ipuin kontaketa hau 9 urte bitarteko haurrentzat da eta Lamiak taldeak egiten ditu kontaketak ostiralero 18.00etatik aurrera.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

altzako Historia Mintegiak argitaratzen duen Estibus aldizkariak bere azken alea argitaratu berri du eta bertan, Altzanet proiektu berriaren berri ematen digu Antton Alfarok. Hemendik aurrera, Internet sare telematikoaren erbiltzaileek Altzari buruz-

ko informazioa eskuratu ahal izango dute Altzako Historia Mintegiak daukan Web orriaren bitartez (<http://www.eusnet.org>). Orri honetan Altza eta Altzako elkarten informazioa aurkitu daiteke.

Hala ere, Altzanet proiektuak aurrerago joan nahi du

eta hau lehen pausu bat baino ez da. Informazio sarea bertako elkarte guztietara zabaldu nahi dute eta horretarako helbide zibernetiko bat eskuratu dute: altzakom @ eusnet.org. Informazio gehiagorako, 35 30 80 telefonora deitu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

KANTU LIBURUSKA

100 pezeta
bakarrik
balio du!!



**Zure afari, bazkari,
bidaia eta lagun
giroetan
lagunduko dizun
liburuxka praktikoa.**